


Zika birusak fetuei mikrozeftalia eragin diezaiekeelakoan, eta Hego eta Erdialdeko Amerikan zein agudo hedatzen ari den ikusirik, larrialdi egoera globala dekretatu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak, otsailaren 1ean. Estatu kaltetu gehienek birusa transmititzen duen eltxoa suntsitzera bideratu dituzte ahaleginak, eta haurdunaldia ekiditeko gomendioa luzatu

zaie emakumeei, horretarako inongo kanpaina lagungarri-rik abian jarri gabe. Zikak gogorren jotzen duen tokietan –lurralde txiroenak dira, bide batez esanda– kontrazepzio neurriak hutsaren hurrengo dira, ez dago heziketa sexualik ez osasun zerbitzu efektiborik, abortua gogor penalizatuta dago eta emakumeen aurkako indarkeria tasa handia da.

## Zika birusa eta emakumeen ugaltze eskubideak Hego eta Erdialdeko Amerikan



### ZIKA KASU BAIEZTATUAK HEGO ETA ERDIKO AMERIKAN ETA KARIBEN



Diagnostikoak ez dira fidagarriak eta sarri beranduegi heltzen dira.

- **Haurdunaldien %56** ez dira planifikatuak
- **24 milioi emakumek** ez du antikonzeptzio neurririk eskura. Lurralde txirotuetan bizi dira, osasun zerbitzurik ez den tokietan.
- **4 milioi abortu arriskutsu urtean**
- **Nerabeen %23** gutxienez behin gelditzen da haurdun 18 urte bete baino lehen, El Salvadorren.
- **nerabe haurdunen %9** abortu arriskutsuen ondorioz hiltzen dira.
- **7 estatutan ezin da inolaz ere abortatu**  
Ezta fetuaren malformazio kasu larrietan, bortxaketetan edo amaren bizitza arriskuan denean ere. (Nikaragua, Haiti, El Salvador, Honduras, Txile, Dominikar Errepublika).